

0.- SARRERA

Azken zenbakitik igarotako ia lau hilabete hauen ondoren, Gabonetarako etxera itzultzen da Bidankozarteren ale berri bat. Aurreko zenbakia ezohiko ohar

historikoen kopurua bazuen ere, oraingoan ohiko formatura bueltatuko gara. Oso gai ezberdinak aztertuko dira: antzinako neguak, mando, zaldi eta abarrei

dagozkiena, Dominikar Errepublikan hildako bidankoztarra...

Goazen harira.

1.- HISTORIA APURRAK - MANDOEKIN BUELTAKA (1639, 1689 eta 1739 (2))

Bidankoztarrak, aspalditik hidalgoak izan arren, ez dira historikoki oso aberatsak izan eta oso lotuta izan dira lurra eta azienden lanetara. Beraz, erreza da ulertzea familia batentzat zer garrantzitsua zen mando edo idi bat izatea.

Gaurko zenbakian mandoekin zerikusia duten epaiketak aipatuko ditut. Kasualitatez 2014. urtetik atzera urte borobilak dira (duela 375, 325 eta 275 urte, hurrenez hurren, gertatu ziren). Epaiaketa hauen epaiak ez ditut ezagutzen, ikertzeko astirik ez baitut izan. Nafarroako Artxibategi Orokorrean epaiketa hauetaz dauden erreferentziak hemen utziko ditut, ea baten bat sakontzen animatzen den.

Lehenengo kasuak, 1639koa, bi bidankoztar ditu protagonista. Dirudienez, Marcos de Urzainkik Juan Garzetxeri mando bat utzi zion (Garzetxe abizena gaurko Garzes da. Bere garaian, Artutx edo Salbotxekin gertatu zen bezala, Garzetx zen). Itzuli zionean hanka bat hautsita zuen eta lanerako ez zuen balio dagoeneko. Marcosek 500 erreale eskatzen zizkion Juani sortutako kalteagatik: mandoaren balioa eta sendatze lanak.

Erreferentzia: AGN 227054 prozesua.

Jose Resano

epaitegira eraman zuen. Dirudienez, gure herritarrek 4 esnezaldikume, hau da, 4 moxal, andosillarrari saldu zizkion. Garai hartako azienda-feria batean izango zen. Ordainketa bi epeetan adostu omen zuten. Zati bat ferian eta bigarrena beranduago. Bigarren zatia, 418 erreale, ez zuen jaso eta gertatu behar zena gertatu zen.

Afera nola konpondu zen jakiteko: AGN 242458 prozesua.

Urte berean, 1739an, beste liskarra sortu zen eta, kasu honetan, gure

herrikoa eraman zuten auzitara. Ezkarozeko Juan Barber-ek Bernardo Sanz-i 26 dukat eskatzen zizkion mando baten salmentagatik.

Erreferentzia: AGN 092599 prozesua.

Hauek adibide batzuk besterik ez dira. Beraz, pentsa dezakegu kasu hauek ohikoak zirela. Honek ikustarazten digu duela gutxi arte Bidankozen zaldi-aziendak zer garrantzia zuen.

Erreferentzia: AGN 270940 prozesua.

Mende erdia beranduago, 1739an, Marcos Sanz bidankoztarrak Andosillako



Bigarren epaiketak, 1689koa, Izabara garamatza. Bidankozeko Pedro Iriartek Izabako Vicente Rosekin zor bat zuen. Fidantza mando bat eta ardo karga bat izan zen. Iriartek zioenez, zorra kenduta zegoen. Erret idazkaria (gaurko notarioa) Izabako Miguel de Baines y Lorbes zen. Honek abala exekutatu zuen. Mandoak mina hartu zuen eta Iriartek idazkaria epaitegira eraman zuen.

2.- HISTORIA APUR GEHIAGO - BIDANKOZTAR BAT HILDA DOMINIKAR ERREPUBLIKAN

1864. urtea amaitzen ari zen eta bidankoztar bat soldaduzka ari zen egiten Dominikar Errepublikan, herrialde independentea zena 1844etik, baina, 20 urte beranduago, berriro Espainiako kolonia gisa zebilela. Birkolonizazio honek gerra bat sortu zuen, Berrezarkuntzako Gerra [1863-1865], non dominikarrak haien independentzia berreskuratzen

saiatu ziren eta espainiarrak, berriz, antzinako kolonia menperatzen.

Patricio Sebastián Artuch Mainz (*Anama*) gixajoari, bere etxeko premua zena, armadarako deitu zioten eta bere norakoa Dominikar Errepublika. Beste gazte askorekin batera, hara bidali zuten "iraultza zapaltzera", Erreginarean

Infanteriako 2. Erregimentuko 2. Batailoian borrokatzen.

Azkenean, zorte txarra izan zuen eta heriotza topatu zuen 22 urte zituenean Santo Domingon 1864ko azaroaren 16an.

Ba hori, *Anamako* Patricio, kolonialismoaren albo-biktima.

3.- HEMEROTEKA - 1915eko NEGU GORRIA

1915eko otsailaren 3ko argitalpenean *El Pensamiento Navarro* jasotako artikulua ondorengo paragrafoa amaitzean idatziz jasotzen dut bere irudi kalitatea eskasa delako. Edozein modutan ere, kronika bitxia Bidankozeko berriemaileak uzten diguna, aurreko neguan bezalatsu, bere kontaktarako trebezia begi bistan uzten du gertaturikoa hain modu adierazgarrian azalduaz.

BIDANKOZEZ

Bailarako herri guztiak, inguruan maiz izaten ditugun elurte handiek eta horiek dakarzkiguten ondorioak jasaten ohituak bagaude ere, uste dut egunotakoak inoiz ikusitakoak direla.

Egunkariengatik jakin izan dugu elurteak orokorrak izan direla eta ,herri honi dagokionez ,aipagarria da lau egunetz postarako bidea ireki ezin izana.

Gutxitan ezagutu da horrelako ekaitz girorik, elur maila bara eta erdira iristeaz

gain, uxinek bideak oztopatu dituzte egun batzuetarako.

BASURDEAK

Arestian aipatutakoaren ondorioz, inguruan oparoak diren piztiengandik bisita jasotzea arrunta izan zen, baina oraingoan benetan zorigaitzoko gauzak ikusi ditugu.

Setiaturik eta gosez amorraturik, antza denez baso trinkoetan ez dute ezkutaleku nahikorik eta dirudienez gure bizitokiak ezkutaleku bihurtzea dute asmoa.

Pasa den asteartean, horietako batek, 18 dozena pisutik jaisten ez zena, etxeko atari bateraino etorri zitzaigun bisitan eta handik jarraituta hilda gertatu zen metro gutxira.

Eta hau gutxi balitz, basurde bat errotako sarrera batetik sartu eta, irteera guztiak itxi ondoren, makilakadaz hil da.

Gaur arte zazpi izan dira ehizatuak, baina aurreikusi daiteke mendi barrena dagoen elur kopuruarekin gertakari zinegetiko hauek errepikatzen jarraituko direla, jakina, lan gutxi egin behar dela haiek aurkitzeko.

EGURALDIA

Deskribatzen den eta ezin atera gabiltzan sei eguneko ekaitz giroaren ostean, gaur badirudi besteren bat bisitan datorkigula, gaurkoan elurra mara-mara ari baita ere.

Bidankoze, 1915eko urtarrilaren 28a

Berriemalea

Ezohiko negua izan zela aipatzen den arre, oraindik izan behar dute arrazoiak gure agureek “*neguak jada ez dira antzinakoak bezalakoak*” esaten dutenean...

4.- LA QUINTA DE 1915

Orain dela mende bat jaiotakoen kinta aurrekoa baino pixka bat txikiago izan zen. Beharbada I. Mundu Gerraren hasiera izango zuen eragina, gure lurraldean eragin zuzenik ez baitzuen izan, zeharka ziur aski nabaritutako zen 15 kilometrotan iparralderantz ordurarte inoiz ezagututako gerrarik odoltsuena gertatzen ari zen.

Era honetan, Bidankozen 1915ean jarraian zerrendatuko ditugun 10 haurrak jaio ziren. Parentesien artean, ohi bezala, jaiotetxea eta, behar bada, ondoren bizi zen etxearen izena:

Ángel Sanz Urzainqui (*Arguedas*);
Felipe Artuch Jimeno (*Largotena*);
Ciriaco Landa Urzainqui (*Arriola*);
Nicolasa Landa Arguedas (*Arotx*);
Pascual Urzainqui Hualde (*Lengorna*);
Elena Pérez Goyeneche (*Diego*);
Miguel Pérez Goyeneche (*Diego*);
Esperanza Salvoch Artuch (*Anarna*);
Sabina Iriarte Sanz (*Iriarte/Kurlo*);
Dominica Mainz Mainz (*Refelna / Dominica*);

Bi premu izan zituen kinta bat (Ángel Sanz y Felipe Artuch), bi alabarik gazteenak (Nicolasa Landa y Esperanza Salvoch) eta bikien bikote bat (Elena y Miguel Pérez) *Diego* etxean, horren ohikoa ez zena garai hartan. Era berean, ez zen erreza bikien bikotea bizirautea eta, kasu honetan, Miguel 4 hilabetekin zendu zen eta Elena, nahiz eta aurrera jarraitu, 6 urte eskasekin hil zen. Ciriaco Landa 2 urte baino ez zituen bete eta haur hil zen.

Kinto hauetatik, Pascual Urzainqui Hualdek ere ez zuen zorte handirik izan, gerra zibilean borrokatzen hil baitzen 21 urte besterik ez zituenean.

5.- BIDANKOZEKO HIZTEGIA - ZALDIAK, MANDOAK ETA ABAR

Aurreko ateleko haria jarraituz, oraingoan zaldi-aziendaren inguruko hiztegiar arituko gara. Ez dut hitz asko aurkitu, baina hor doaz topatu ditudanak:

Albardón: Zamaria montatzeko uhalaria;
Che, che, che: Astoari deitzeko hotsa;
Clín: Zurda (zaldiaren ilea);
Guító: Mando mukerra;
Mulato: Zaldi eta astoaren semea;

Renchilar: Irrintzi egin;
Ruch, ruch: Zaldiari deitzeko hotsa;
Semental: Aitarena egiten duen zaldia;
Yeguacería: Behor-taldea;
Zarrear: Arrantza egin;

6.- TOPONIMIA - TXURRUSTA

Aukera honetan egokitzen zaigun toponimoa herritik oso hurbil dagoen toki bati egiten dio erreferentzia, esan genezake herriko mugan bertan dagoela: *Txurusta*. Izen honekin *Pitxorronga* eta *Igariarena* artean dagoen ur-jauziari deitzen zaio, *Igariarenako* erreka Binte ugaltzarako bidean egiten igarotzen duen koxkarik handiena.

Euri edota elur-urtze garaietan ikus daiteke ura *Txurustan* barna jaisten. Izan ere, hortik dator leku honen izena, jatorria *zurust* euskaldun onomatopeian baitauka, uraren igarotzen edo jausten denean deskribatzen duen soimua. Hau honela izanik, garai batean, uskara Bidankozeko eguneroko hizkuntza zenean, posible litzateke *Txurusta* bat baino gehiago egon izana herriko beste parajeren batean, nahiz eta hau baieztatzerik ez dagoen. Ildo horretan, esangarria litzateke hala Erronkarin nola Zaraitzum, tankera berdineko hainbat termino aurkitzen direla, fisikoki antzekoak diren tokiei erreferentzia egiten dietelarik: Urrutira

joan gabe Burgi eta Erronkari artean aurkitzen diren *Txorrotak* ditugu, Burgiko *Zurrustape*, Urzainkiko *Txorrota* etab.



Leku honen historiari so eginez, nahiz eta txikia izanagatik pentsa zitekeen ezer gutxi izanen zuela kontatzeko, ziurrenik inoiz argituko ez dugun sekretu bat du gordeta: Celedonia Fuertes Ustes-en (*Lixalte / Larranbe*) heriotzaren inguruan gertatutakoa. Gai hau, 2014ko jaietan

eskaini zen "*Bidankoze Beltza*" hitzaldian jorratu zen, beste batzuen artean.

1900ko apirilaren 29an *Xelonia* (horrela deitzen baitzieten) 68 urtetako andre zaharraren gorpua *Txurustaren* azpian eratutako putzu txikian agertu zen, itxuraz itota, heriotza-agiriak zioen moduan. Baina dokumentu hark berak aipatzen zuen moduan, autopsia burutu eta gero, argi geratu zen itolarriak ez ziola heriotza ekarri, baizik eta "*garuneko kommozioa eta hodi meningeo nahiz garunekoetan gehiegizko odol fluxua sorrarazi zion talka bortitz bat*", hau da, *Txurustatik* behera erori egin zela.


Epai-diligentzia bideratu ziren, baina betiko desagertu omen ziren 1936ko gerra zibilaren ostean gauzaturiko *garbiketetan*. Hura pena, *Txurustan* zer gertatu ote zen (edo gertatutakoaz zer kontatzen zuten) jakiteko gogoarekin geratuko baikara, nolana ere, argitu gabeko misterioak.

7.- OIKONIMIA - PEXENENA

Gaur *Pexenena* etxeari dagokio txanda. 1950. urtearen inguruan, gure herrian hutsik geraturiko lehenetarikoa izan zen. Bidankozeko etxe guztien artean argazki bat tximini erronkariar tipikoarekin kontserbatzen duen bakarenetariko bat da, horregatik, *Pexenena* etxea harro egon daiteke. Seguruenik, hitz hauekin batera datorren argazkia, 1950ko hamarkadako hasierakoa izango da, zeharbidea (herria zeharkatzen duen errepidea) eraikuntzan baitzegoen.

Kontua da *Pexenena* etxea hutsik geratu zela (bertan bizi zirenak, Navarro Carricatarrak, *Arotx* etxera [gaur egungo *Arbizu* etxera] joan ziren urte batzuetarako) eta ukiulu eta lastategi bezala erabiltzera pasa zela. Berriketa askoren lekuko izan zen hegoaldeko paretan izan

zuen eserlekua. Azkenean, Casildo Sanz Sanz-ek (*Kurlo*) 2001 urtean berreraiki



zuen.

Pexenena izenaren jatorriari dagokionez, gaia zailagoa suertatzen da. Bestetan azaldu dugun bezala, *Pexenena*, -

ena edutezko atzizkia darama, beraz "*Pexen-en (etxe)-a*" esan nahi izango du.

Baina nondik dator *Pexen* izena? Batek daki. Ziur aski, jatorria eta esanahia ezagutzen ez dugun ezizen bati dagokio (ez baitut azalpen bat ematen duen beste antzeko hitzik aurkitu). Agian, nahiz eta hau aukera gutxiago izan, Presentación izeneko emakume bati legokio, jendeak *Presen* deituko ziotela eta herritar ahoskatzeagatik *Pexen* bilakatzeraz ailegatu ahal izan zela. Hala ere, etxearen genealogiari aztarna segitu ondoren 1700. urtera arte, ez da Presentación izeneko inor agertzen eta aurreko urtetan ez dirudi izen hori erabiliko zutenik (duela gutxiagoko izen

bat dirudi).

Beraz, izen honen jatorriaren zalantzarekin geratuko gara.

8.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (AZIENDA MOTAK)

Mando, zaldi eta abarretara eskaintako *Ohar historiko* eta *Hiztegi* ataleten harira, Mariano Mendigatxak 1905ko otsaileko gutunan Bidankozen abere ezberdinei ematen zitzaizkien izenez aritzen da, bai zaldi-aziendakoak, bai beste motatakoak, uskaraz zein gaztelaniaz

Horrela, azienda-motez Marianoren hitzetan horrela deitzen dira aziendak:

- zaldi-azienda, *zamari gentia*;
- mando-azienda, *mando gentia*;
- asto-azienda, *asto gentia*;
- behi-azienda, *abel gorria*;
- txerri-azienda, *txerri gentia*;
- azienda txikia, *azienda xnea*;
- ahuntz-azienda, *biladuna*;
- ardi-azienda, *iladuna*.

“Arraza” bakoitzeko arrei horrela deitzen diete:

- zaldiari, *zamarío*;
- astoari, *astoá*;
- zezenari, *zezena*;
- txerriari, *aketza*;
- akerrari, *akerrá*;
- ahariari, *markano*.

Emeak araldian daudenean, horrelako izenak ematen zaizkie:

- behor edo asto giriari, en uskara *gori*;
- behi susarari, gaztelaniaz (g) *toridera*, en uskara (u) *susare*;

- ahuntza ahunzkari, *urcidera* (g) e *iruzu* (u);
- ardi arkarari, *amanecer* (g) y *arkara* (u);
- txerri irausiri, *barraguera* (g) e *inausi* (u);
- txakur oharari, *cachonda* (g) y *ogara* (u);
- katu oharari, *amoros* (u).

- 7 urteko mandoari, *cerrado* (g) y *zerratruk* (u);
- asto jaioberriari, *cría* (g) y *ume* (u);
- urtebeteko astoari, *pollino* (g) y *attoko* (u);
- behi jaioberriari, *cría* (g) y *ume* (u);
- urtebeteko behiari, *ternero* (g) y *xanl* (u);

- 3 urte arteko txahal emea, *bigantxa* (u);
- urte bete arteko ahariari, *ariko* [*ahariko*] (u);
- bi urte arteko ahariari, *borro* (u);
- hiru urte arteko ahariari, *ari* [*ahari*] (u);
- hiru urtetik gorako ahariari, izena ematen zaio dituen hortz kopuruari begira, bere adinarengatik;
- urte bete arteko ardiari, *artxo* (u);
- bi urte arteko ardiari, *primala* (u);
- bi urtetik gorako ardiari, arrei izendatzeko era



Bukatzeko, Mendigatxak arraza bakoitzeko umei ematen zaizkien izenak ematen ditu, adinez berezita:

- zaldi jaioberriari, *cría* (g) y *ume* (u);
- urtebeteko zaldiari, *potro* (g) y *putxu* (u);
- mando jaioberriari, *cría* (g) y *ume* (u);
- urtebeteko mandoari, *mulato* (g) y *manyoko* (u);

berean;

Garai hartan, azienda funtsezko toki bat zuen gure arbasoen bizitzan, eta horregatik horren inguruko hiztegia dago horren berezituia. Dena den, eta Hiztegi ataleko aurreko emanalditan ikusi dugun moduan, hemen daudenak ez daude guztiak, beste asko faltako baitziren.

9.- BUKAERA

Eta honaino oraingoan kontatu behar nuena. Hurrengo zenbakirako, Aste Santurako prest izanen dena, beste gai interesgarri asko: bi bidankoztarren arteko epaiketa “emandako ezkontzeko agindua betetzeko, zeinekin beste alderdiari osotasun eta birjinitatea kendu zion”, duela 100 urteko ekaitz perfektua, duela mende

bat gure herrian sortutako Kontsumo Kooperatiba, Arain lekuizena, Kostiol etxea eta, sartzen bada, zerbait gehiago.

Ordurarte, sua astintzera eta negua ahal den moduan gozatzeko.

Hurrengo zenbakia argitaratzen denean dagoeneko 2015ean egongo gara, oso urte

ona izango dena, ziur. Eta aldizkaritxo honekiko hurrengo hitzordua, apirilaren hasieran.

Besterik ez. Agur bero bat.

LAGUNTZAILE:

AYUNTAMIENTO
DE LA VILLA DE
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO
AIZA BULGUA